

### **Funtsezko baliabideak:**

Gure enpresaren jarduera aurrera eramateko zenbait baliabide behar izango ditugu, alegia, pertsonak, hau da, langileak beharko ditugu formakuntza desberdinekin. Alde batetik harreman zerbitzuetan espezializatutako langile batzuk beharko ditugu. Bestetik, teknologiarekin gaitasuna duten batzuk ere behar ditugu. Lokala ez dugu beharko ezta materialak eta erremintak ere. Gainera, gure proiektua nolakoa den kontuan hartuz gero, ezin bestekoa da ekipo informatiko formatu bat izatea.

Bestalde, web ataria eta sare sozialak izatea gure enpresarentzat bazkideak erakartzeko iturri nagusiak izango dira. Izan ere; influencer garrantzitsu eta famatuenekin kontaktatuko dugu gure enpresari publikotasuna zabaltzeko eta gure proiektua sozializatzeko. Horrez gain, gure sare sozial propioak ere izango ditugu. Instagram kontua, twitter kontua, facebook kontua eta baita tiktok kontua ere, gaur egungo gazteetara heldu ahal izateko.

Lan postuak eskeiniko dituen aplikazio bat sortuko dugun bitartean, lizentziak, ziurtagiriak eta patenteak ezin bestekoak izango dira. Gainera, proiektu honen erabiltzaileari hasiera hasieran eman behar zaio lizentzia edo arau guztien berri, eta ez hori bakarrik, hobea litzateke erabiltzaileari hau onartaraztea. Horrez gain, legez derrigorrezkoa da erabiliko diren baliabide guztien lizentziak izatea, ez soilik beharrezkoa delako, baita produktua babestu ahal izateko ere, plagioak eta kopiak ekiditeko.

	1. urtea	2. urtea	3. urtea
LOKALA	-	-	Urteak pasa ahala beharrezkoa ikusten dugu proiektua bideratu ahal izateko.
INSTALAZIOAK	-	-	Proiektuak aurrera egin ahala, instalazioak erakargarriak izango lirateke aplikazioaren erabiltzaileentzat.
GARRAIOBIDEAK	-	-	Lokalerako behar dugun makineria garraiatzeko furgoneta edo kotxe handi bat beharko dugu.
ALTZARIAK ETA BESTELAKOAK	-	-	Lokala izango dugunean, horretarako beharrezkoak direnak. Esaterako, apalak, mahaia, aulkiak...

INFORMAZIOA PROZESATZEKO EKIPOAK	Aplikazio bat sortzeko ordenagailuak ezinbestekoak dira. Lehenengo urtea izanik batekin balioko luke.	Bigarren urtea izanik, zuzendaritza taldeko kide bakoitzarentzat ordenagailu bat aurreikusten dugu.	Hirugarren urtean eta aplikazioak etorkizuna daukela ikusita, goi mailako ordenagailuak lagungarri izango lirateke.
BESTE INBERTSIO BATZUK	Lehenengo urtea izanda, aplikazioaren logotipoan dirua inbertitzea aurreikusten dugu.	-	Berrikuntzaren bat jartzearen, dirua berrinbertituko nuke aplikazioaren logotipoa berriztean.
INBERTSIOAK GUZTIRA			

Lehenik eta behin, lokalari dagokionez, lehenengo bi urteetan ez dugu beharrezkoa ikusten. Gainera, gastu bat gehiago izango litzatekela uste dugu, behar ez dugun gastu bat gehiago. Lehenengo bi urteetan etxean lan egitea aurreikusten dugu. Baina proiektuak aurrera egin ahala lokala izatea komenigarria dela uste dugu. Administrazio sailak leku seguru bat ziurtatua izan dezan, eta elkarlanean aritzeko aukera finkoa izan dezan.

Gainera, lokala izanda errazagoa izango litzateke egin behar diren papeleo guztiak betetzeko, dena eskura izanda, eta eztabaidatu behar diren gauzak momentuan bertan eztabaidatu ahal izateko. Horrekin bat, hirugarren urtean ezartzea aurreikusten dugun instalazioa erakargarria izango dela uste dugu. Lehenengo urteetan mugikor bidez erabili izan den aplikazioa lokal txiki batean isladatua ikusitea interesgarria iruditzen zaigu. Aplikazioaren estetika antzekoa, formatu bera... Horrela bezeroengako zuzeneko harreta lortuko dugula deritzogu eta gainera lokalera hurbilduko direnen harreta deitzea lortuko dugu.

Informazioa prozesatzeko ekipoari dagokionez, aplikazio bati buruz ari garen bitartean, ordenagailuak ezinbestekoak direla argi dago. Lehen urtetik eta azkenera. Baina, daukaten garrantziari erreparatu ezker, lehen urtean aplikazioa kontrolatua mantenduko duen ordenagailu bat edo bi beharrezkoak dira. Hortik aplikaziorako behar den guztia disenatu (logotipoa, ikonoak, aplikazioaren estetika...), erabiltzaileek egiten dituzten ekarpenak jaso, berrikuntzak egin, erabiltzaileenganako harretan zentratu... bigarren urtean, aplikazioak daukan garapena ikusten dugunean, bigarren, hirugarren edo laugarren ordenagailuak erostea komenigarria da beti, gainera, aplikazioaren administrazio saila handituko dela uste dugu eta hori aurreikustean ordenagailu berrien eransketa bat sumatzen dugu.

Azkenik, hirugarren urtetik aurrera, goi mailako ordenagailuetan inbertitu beharko genuke, aplikazioaren erabiltzaile kopuruaren areagotzea aurreikusten dugularik. Hemen, berrikuntza bat egongo dela uste dugu, eta hori disenatu eta aurrera eraman ahal izateko goi mailako ordenagailuek daukaten tresneria beharrezkoa baita.

Garraibideari buruz gutxi esan dezakegu. Aurretiaz aipatu bezala, lehenengo bi urteetan etxetik lan egingo dugu, beraz, ez dugu garraibiderik behar izango. Baina hirugarren urtean, lokal berri bat aurreikusten dugunez, bertara beharrezko tresneria garraiatu eta beharrezko altzairu berriak garraiatzeko ezinbestekoa izango dugu furgoneta edo auto handi bat izatea. Lagunena, alokatua edo administrazio sailaren barruan dagoen kide baten furgoneta. Ez baitugu furgoneta berri baten erosketa aurreikusten.

Altzariez eta bestelakoez ere ezin dugu gauza askorik esan, lehenengo bi urteetan etxetik lan egingo dugu eta ez dugu administrazio sailerako berezko altzairurik beharko, baina lokala erosten dugun momentuan behar beharrezkoak izango ditugu altzairu minimo batzuk. Aukliak, mahaiak, apalategiak, kajoak... Honetan ez dugu gastu ikaragarri bat aurreikusten, etxean soberan dauzkagunak, bigarren eskukoak, lagunena edo familiaren altzairuak erosi edo maileguan hartzea espero baitugu. Ahalik eta diru gehien aurrestuz.

Azkenik, beste inbertsio batzuei dagokienez, hasierako logotipoa disenatuko duen norbait kontratatzea egokiena litzatekeela uste dugu. Azkenean, administrazio saileak ez dago horretan espezializatua dagoen pertsonarik eta aplikazio bat sortzean erabiltzaileari begira sartuko zaion zerbait sortzea ezinbestekoa da. Bigarren urtean logotipo zaharrarekin jarraitzea aurreikusten dugu baina hirugarren urtetik aurrera, berrikuntzak espero ditugularik, disenugile berri bat (edo zaharra diseinatu duen pertsona bera) kontratazea espero dugu.